

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarria, Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Rodolfo Ares Herrizaingo** sailburuari, “**2011ko urtarrilaren 27ko eguerdian hainbat sindikatuk deituriko manifestazioan Dato kalean Ertzaintzak manifestariak jo izanaz**”, osoko bilkuran erantzuteko.

ZIOA

Urtarrilaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko gehiengo sindikalak deituriko manifestazio bat igarotzen ari zela, Ertzaintzak manifestarien kontra egin zuen, manifestazio horretan zihoazen hainbat lagun kolpatuz. Tartean, interpelazio hau sinatzen duen legebiltzarkidea ere kolpatu zuen Ertzaintzak. Lehenengo kolpea, ertzain bati euskaraz galdetu zionean zergatik kolpatu zuen, herritar bat, astiro, baina bazihoana. Hori entzunda, beste ertzain batek ekin zion kolpeak emateari. Bigarren eta hurrengo kolpeak, azken ertzain horrek, zenbaki profesionala euskaraz eskatutako bakoitzean. Azkenean, gaztelaniaz legebiltzarkide izaeraren berri eman eta gero, kolpeak emateari utzi eta alde egiteko eskatzen hasi zen ertzaina. Berriz ere zenbaki profesionala eskatu eta “qué pesado eres” bota ondoren, amore eman eta ustez karnet profesionala dena erakutsi zuen.

Kolpeen ondorioz, bernak mindurik zituela eta, Santiagora joan eta ubelduren berri jasotzen duen agiria eman zion guardiako medikuak. Itxarote-gelan beste hainbat lagun zeuden, manifestazioan jasoriko kolpeez artatuak izateko zain, tartean adineko gizon bat, zeinak lau saihets apurturik ei zituen.

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuari:

INTERPELAZIOA

Azal dezan zergatik eta zertarako jo zituen Ertzaintzak hainbat herritar, aipaturiko gertakariak izan zirenean, bai eta horretarako agindua nork eman zuen ere.

Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 28an

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea